







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

**Elektrizitatea**  
 Kontsumitutako elektrizitateak %7 egin zuen behera 2012an, 2011. urtean izandakoaren aldean. Beherakada horren eragile nagusia industria izan zen, bizitegi eta zerbitzu alorretan ez baitzen aldaketa esanguratsurik gertatu.

Industrian izandako jaitsiera (%11,6) siderurgian izandakoari zor zaio gehienbat, %19,5 jaitsi baitzen (industrian kontsumitzen den elektrizitatearen %43 hari dagokio gaur egun). Beste alor batzuetan ere nabarmen jaitsi da kontsumoa: beiragintzan %14,5, kautxuaren eratorrietan %11,1 eta egur zein kortxoan %26,8.







**Gas naturala**  
 2012an gas naturalaren guztizko kontsumoa %6,2 igo zen, 2011n izandakoarekin alderatuta. Zentral termikoen kontsumoak %22 egin zuen gora, eta gainerako kontsumoek %1,6.

**Erregaiak garraioan**  
 Erregaien kontsumoa %7 igo zen azaroan, 2010eko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %5,4 egin zuen behera eta A gasolioenak, berriz, %8,8 egin zuen gora. Urteko metatua, azarora arte, %5,6 igo da guztizko kontsumoan. Zehazki, gasolinena %4,8 jaitsi da eta gasolioena, ordea, %7,2 igo da.

Joera aldaketa horretan zerikusi handia eduki ahal izan du mugako erkidegoetan Hidrokarburo Zenbaiten Xehakako Salmenten Gainerako Zerga (IVMDH) igo izanak.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera



### EAetik kanpoko egoera

#### Petrolioaren kontsumoa munduan

Abenduan, munduan petrolioaren kontsumoa 90,1 milioi kupel egunean izan zen (2011ko abenduaren aldean, %0,4 igo zen). Hala, Europar Batasunean %2,1 egin zuen behera kontsumoak urtebetean, 13,5 Mbd kantitatera iritsiz; AEBetan, aldiz, %0,9 egin zuen gora, eta 19 Mbd kopuruan kokatu zen. Txinan %3,9 egin zuen gora, eta 10,5 Mbd kontsumitzera heldu zen.

Munduan, petrolioaren eguneroko batez besteko kontsumoa %1,1 igo da azken sei hilabeteen, oro har, eta Txinan %4; Europar Batasunean eta AEBetan, berriz, %3,8 eta %1,9 jaitsi da, hurrenez hurren.

#### Energiaren kontsumoa Espainian

Gas naturalaren kontsumoa %1,8 jaitsi zen abenduan, Espainian; 2011n, hil horretan, izandakoaren aldean; eta 2012. urtean guztizko kontsumoak %2,9 egin zuen behera.





Elektrizitatearen kontsumoak ere behera egin zuen (%3), 2011ko abenduan izan zenarekin erkatuta, eta 2012. urteari dagokion metatua 2011n izandakoaren mailaren azpitik dago (%1).

Espainiako errepideetan erregaien kontsumoak %6,8 egin zuen behera azaroan, 2011ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %7,8 jaitsi zen, eta %6,6 gasolioen kasuan. Azarora arte metatutako kontsumoa %6,1 jaitsi zen (%7 gasolinena eta %5,9 gasolioena).

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %14,7 egin zuen behera azaroan, eta 2012an metatua %5,8 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIaren datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Petrolioaren prezioa

Abenduan, Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 112 \$ (87 €) izan zen. Abendura arte, urtean batez besteko prezioak %1 egin zuen gora, 2011. urtean izandakoaren aldean (%9,2 eurotan).

#### Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %22 igo zen azaroan, 2011ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 28,2 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %0,3 egin zuen gora 2012ko azaroan, iazko hil horretan izandakoaren aldean (29,3 €/MWh).

#### Ikatzaren prezioa

Ikatzaren prezioa azaroan 92,9 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %19,1 jaitsi da.

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %16,7 egin zuen behera abenduan, urtebete lehenago hil horretan izandakoaren aldean, eta 41,7 €/MWh iritsi zen.

#### Erregaien prezioa

EAEn, gasolioaren prezioa 1,31 €/l izan zen 2012ko abenduan; gasolinarena, aldiz, 1,34 €/l. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %2,3 eta %4,8 igo ziren, hurrenez hurren.

#### CO<sub>2</sub>-ren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 6,2 €/t izan zen abenduan; 2011ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %34,6 egin zuen behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFaren datuetan oinarrituta.